

2019KO MAIATZAREN 9AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2019ko maiatzaren 9an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EHBildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)

Zinegotzi hau ez da bertaratu: JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikerea emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate andrearen lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2019KO MARTIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2019ko martiaren 28an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- 2019KO APIRILAREN 1EAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2019ko apirilaren 1ean egindako aparteko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

3.- 2019KO APIRILAREN 29AN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2019ko apirilaren 29an egindako aparteko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

4.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Udal idazkariak, dekretu bakotxaren azalpen laburtua emon dau (76. dekretutik 124.ra arte) . Era horrela amaitu da puntu hau.

5.- 2019KO UDAL AURREKONTUAREN ALDARAZPENAREN 5. ESPEDIENTEA ONARTU, KREDITU GEHIGARRIAREN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpenaren nondik norakoa azaldu dau, espedientearen edukia hauxe izanik:

GASTUAK EGITEKO PROPOSAMENA ETA, ONDORIOZ, KREDITUEN ALDARAZPENA

Zerrendatzen diren gastuak aurrera eramateko premia larria dago; izan ere, gastuen ordainketa ezin luza daiteke, zerbitzuak emateko erritmoa eteteak gaitz-kalteak sor litzakeelako edo kudeaketa maila jaits litekeelako. Beraz, horiek finantzatzeko behar adina aurrekontu kreditu ez dagoenez gero, honako proposamen hau egin da indarreko aurrekontu egiturari doitu.

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
171.601.00.12	HAUR PARKEA BERRISTEA	36.800,00 €	50.000,00 €	86.800,00 €
320.622.02.03	Eskolako obrak	0,00 €	30.000,00 €	30.000,00 €
333.601.00.14	Ibarretako Konponketa	0,00 €	34.000,00 €	34.000,00 €
459.601.00.13	Probaleku inguruko gunea eta aparkalekua egokitzea	0,00 €	200.000,00 €	200.000,00 €
3321.623.00.04	MATERIAL EROSKETA	0,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €
		36.800,00 €	334.000,00 €	370.800,00 €

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
870.01	Remanente para gastos generales	764.202,91 €	334.000,00 €	430.202,91 €
		764.202,91 €	334.000,00 €	430.202,91 €

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horri buruzko azalpenak emon dauzan ezker, bai eta informazio batzordean aztertu dan ezker be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **2019 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 5. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu gehigarriaren modalidadean.**

6.- LEHEN HEZKUNTZAKO “URKITZA” IKASTETXEKO PATIOKO OBREN PROIEKTUA ONARTU, BAI ETA, KONTRATAZINO ESPEDIENTEA BE.

Amets Jauregizar alkate andreak, hauxe adierazo dau: Honakoak dira, laburbilduz, Bakioko eskolako patioaren eraldaketaren 1. Fase honetako proiektuak jarraitzen dituen helburuak:

- Patioak gaur egun dituen premiazko arazoei erantzuna ematea.
- Patioaren irisgarritasuna egokitzea. Irisgarritasun arazoak ebaztea.
- Eskolako epe laburreko eskakizunei erantzuna ematea.
- Parte-hartze prozesuan amesten den patiorako behar bezalako oinarria bermatzea.
- Patioaren pabimentu akabera ezberdinak ordenatzea/berantolatzea.
- Eremu gogor eta bigunen arteko oreka mantentzea.
- Patioan erabilera anitzak ahalbidetuko dituen oinarria edukitzea.
- Elementu naturalen/begetazioaren presentzia indartzea

Era berean, dino be, hemen zerrendatutako gabeziak konpontzeko behar-beharrezkoa dala patioaren eraldaketari buruzko obra egitea. Hori dala eta, TEO ARKITEKTURA KOOP. ELK. TXIKIA proiektua idatzi dau. Beraz,

Kontuan izanik, Alkatetza honek obra horreek egitea beharrezkoa dala azaldu dauala, obren proiektuko memorian ageri diran arrazoiak dirala eta. Ganera, obrak kanpoko enpresa batek egin behar ditu udalak horretarako azpiegiturarik ez daukalako.

Beraz, administrazio-klausula zehatzen orrian idatzi da, eta, bertan ageri dan modura, adjudikazioa idegi sinplifikatuaren prozeduraren bidez izapidetuko da. Obren balio estimatua 172.576,20. eurokoa dala kontuan izanik; hori guztiori Arlo Publikoko Kontratuen zehazketaren 8ko 9/2017 legearen 159. artikulua araberaz.

Gauzak horrela, espedienteko dokumentazioa ikusirik eta bertan jasoten danaren araberaz, bai eta zehazketaren 8ko 9/2017 Sektorre Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen 117. artikulua araberaz be, Udalaren Osoko Bilkurak aho batez, erabagi hau hartu dau:

1.- Bakioko Urkitza ikastetxeko patioaren eraldaketarako proiektuaren- 1. Fasea- obren ejekuzioari buruzko proiektua onartzea, segurtasun eta osasuneko oinarritzko azterketa eta Baldintza Teknikoen orria barruan dirala.

2.- Proiektuko obrak esleitzeko prozedurari hasikerea emotea, bai eta kontratazio espediente onartzea be, kontratua eraenduko daben Administrazio Klausula Zehatzen Orria barruan dala, kontuan izanik 2019ko ekitaldiko udal aurrekontuaren gastuen orriaren 320 6220103partidan gastuei aurre egiteko ordainketa kreditua zainpetuta dagoela.

3.- Gauzak horrela, adjudikazioa prozedura ireki sinplifikatuaren bidez izapidetuko da eta kontratuaren burutzapenaren iraupena 10 astebetekoa izango da, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, barriz, 172.576,20-€eurokoa gehi 36.241,00.-€BEZa, beraz, guztira 208.817,20 euro da.

4.- Adjudikazio prozedurari hasikerea emotea.

7.- 2019KO EKITALDIARI JAGOKONEZ, BAKIOKO KULTUR ETA KIROL ALKARTEEK DIRU-LAGUNTZAK JASOTEKO ESKABIDEARI BURUZKO DEIALDIA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Zinegotziek deialdi horren edukina ezagutzen daben ezkerok, eta gaiari buruz informazio batzordean be berba egin dan ezkerok be, Ikusirik inork be ez daukala

aitamenik egin, botoa emoteko txandea heldu da; eta, beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

BAKIOKO UDALERRIKO ELKARTEEI 2019. URTEAN URTEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN BERARIAZKO OINARRIAK ONARTZEA, horren edukia hauxe izanik.

SARRERA

Bakioko Udalak deialdi honen bidez emango dituen diru-laguntzen helburu dira Bakion egoitza duten kultur, kirol eta gizarte elkarte guztiak. Gehienbat elkarte txikiak dira, sarri langilerik gabe eta boluntarioei esker jarduten dutenak. Bestaldetik ere, udal honek badaki laguntza publiko hauen xedea irabazi asmorik gabeko erakundeon jarduerak laguntzea, saritzea eta baloratzea dela, babes hori ezinbestekoa baita erakunde eskatzaileek bizirik jarrai dezaten. Azkenik ere, aintzat izan behar da talde horien ohiko jarduera dela garapeneko edozein gizarteren euskarrietako bat.

ESPARRU ARAUEMAILEA

Oinarri zehatz hauek argitara eman dira Bakioko Udalbatzak 2016ko urriaren 10eko bilkuran behin betiko onetsitako diru-laguntzei buruzko udal ordenantzak (19/11/2016ko BAOn argitaratuta) eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritz.

FINANTZAZIOA

Deialdi honen xedea betetzeko, finantzazioa aurrekontu-kreditu baten kontura egingo da. Aurrekontu-kreditu horren gehienezko kantitatea 27.0000 eurokoa izango da, eta 330/4810120 aurrekontu partidan jasota dago.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publikoetatik edo pribatuetatik jaso ahal diren bestelako diru-laguntzekin, laguntzekin, sarrerekin zein baliabideekin, Diru-laguntzei buruzko Ordenantzak ezarritakoa betetzen bada.

ARAUDIA

1.- HELBURUA

Deialdi honen helburu nagusia honakoa da: Bakioko kultur eta kirol elkarteek 2019an programatutako ohiko jarduerak diruz laguntzea, saritzea eta baloratzea.

2.- ERAKUNDE HARTZAILEAK

Deialdi honetan araututako diru-laguntzak eskatzeko honako baldintza hauek bete behar dira: Bakion egoitza soziala edukitzea edo Bakioko udalerrian egotea, elkarte baten izaera edukitzea eta kultur, kirol edo gizarte jarduera bat garatzea, baldin eta

Bakioko udalerrarentzat interesgarria bada eta Bakioko Udalak garatutako jarduerak hobetzen, osatzen edo ordezkatzeko baditu diru-laguntzen emakida arautzen duen udal ordenantzak ezarritakoaren arabera.

Eskatzaileak elkarte izaera izango du eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan izena emanda izan beharko du.

3.- DIRU-LAGUNTZA MOTA

Diru-laguntza hauek erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamendu programako jarduerak laguntzeko eta sustatzeko dira. Jarduera horiek 2019. urtean garatutakoak izango dira.

4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak Bakioko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira; era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ere aurkeztu ahalko dira.

Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 13tik ekainaren 14ko 14:00etara artekoa izango da.

Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, atzera botako dira. Kasu horretan, eskaera izapidetu gabe artxibatuko litzateke.

Bestalde, behar izanez gero, Kultur Etxean edo udal bulegoetan eskabideak betetzeko argibideak eskainiko zaizkie hala eskatzen duten elkarteei.

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

Informazioa eta eskabideen ereduak eskuragarri egongo dira Udaleko web orrian (www.bakio.org).

Eskaerak deialdi honi atxikitako eranskinak betez aurkeztu beharko dira; hau da, deialdi honi atxikitako hiru eranskinak eta proiektuaren azalpena bete beharko dira derrigorrean, elkarteek balorazio irizpideak zehatzago isla ditzaten. Edozein kasutan ere, diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 7. artikulua ezarritako dokumentazioa aurkeztuko da betiere.

Bestalde, udalak elkarteen gainean dituen datuak eguneratze aldera, elkarteek indarrean dituzten estatutuak aurkeztu beharko dituzte gainerako agiriekin batera, 2017 edo 2018ko ekitaldietan aurkeztu ez badituzte edo elkarte eratu berriak badira.

Udalak, egokitzat jotzen duenean, eskatzaileari dokumentazio gehiago eskatu ahal dio

aurkeztutako proiektuaren balorazioa egiteko. Kasu horretan, dokumentazio hori aurkeztea derrigorrezkoa izango da eskaera aurrera eramateko.

6.- ESKABIDEAK BAZTERTZEA

Ez dira kontuan hartuko epe mugatik kanpoko eskariak, ez eta beharrezko dokumentaziorik gabe aurkeztutako eskabideak ere.

7.- ESKABIDE OSATUGABEAK EDO AKASTUNAK

Aurkeztutako eskabide eta agiriak osatugabeak badira edo zuzen daitekeen akatsik badute, 5 eguneko epea utziko zaio eskatzaileari dokumentazioa osatzeko edo zuzentzeko; epe hori egin beharreko zuzenketari buruzko jakinarazpena egin eta biharamunetik hasiko da. Akatsak zuzendu ezean edo dokumentazioa osatu ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko da.

8.- NORGEHIAGOKA

Deialdi honetako diru-laguntzak norgehiagokaren erregimenari jarraituz esleituko dira, hau da, aurkeztutako eskabideak balioztatuko dira eta, ondoren, lehentasuna erabakiko da, horretarako diru-laguntzei buruzko udal ordenantzak ezarritako irizpideei jarraituz.

9.- BALORAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK

Diru-laguntza erabakitzerakoan, oro har honako irizpide hauek hartuko dira kontuan

a.- EUSKAREN ERABILERA SUSTATZEA ETA PROIEKTUA EUSKARAZ GARATZEA (gehienez 10 puntu)

Erabilera ahoz eta idatziz (3 puntu). Puntuazio osoa lortzeko jendaurreko ekintza publikoen inguruan informatzeko era guztietako mezuak, argibideak, informazioak edota jakinarazpenak euskaraz egingo direla bermatuko da.

Entseguak, entrenamenduak, tailerrak, aurkezpenak... (3 puntu). Puntuazio osoa eman dadin, jarduna prestatzeko entseguak, entrenamenduak, tailerrak eta abar eta ekintzak euskaraz egingo dira. Bazkideei zuzendutako barne jardunak euskaraz egingo direla bermatuz gero, 2 puntu lortuko dira. Azkenik, 25 urtera bitarteko bazkideei edo herritarrei zuzendutako jardunak euskaraz egingo direla bermatuz gero, puntu bat lortuko da.

Euskararen erabilera sustatzea elkarteko kideen artean eta ikus-entzuleen edo partaideen artean (4 puntu). Barne jarduera barruko kideen artean euskara sustatzeko ekimenak eta neurri bereziak (berbalagunak, Euskaraldia, Korrika, UEMaren tailerrak...).

b.- BERDINTASUNA SUSTATZEA GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOEN ARTEAN (gehienez 5 puntu)

Idatzizko nahiz ahozko komunikazioan (2 puntu)

Zuzendaritzan (puntu 1)

Elkarte barruan genero berdintasuna sustatzeko proposatutako ekimenak (2 puntu)

c.- TALDEAREN INPLIKAZIOA ETA LANKIDETZA UDALAK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN (gehienez 10 puntu)

d.- PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK (gehienez 10 puntu)

Jardueren maiztasuna eta kopurua (3 puntu)

Egindako jardueren ikus-entzuleen kopurua (5 puntu)

Elkarte eskatzailearen kide kopurua (2 puntu)

f.- BESTELAKOAK (gehienez 20 puntu)

Euskal kultura edota Bakioko irudia kanpoaldean zabaltzea eta sustatzea (2 puntu)

Genero berdintasuna, euskararen erabileraren sustapena, ezinduen edo etorkinen integrazioa eta antzeko gaiak hobetzeko antolatzen diren ikastaro edo hitzaldietan parte hartzea (3 puntu). Elkarteei alde aurretik emango zaie antolatutako ekintza honen berri.

Ezinduak edota etorkinak integratzeko ahaleginak (2 puntu)

Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko egindako ahaleginak (2 puntu)

Proiektu bakoitzaren alde berritzaile eta osagarriak, beste ataletan jorratu gabeak (3,5) / esate baterako lurraldearen eta ingurumenaren zaintza, tradizioa eguneratzeko ekintzak, baloreen edo balore hezkuntzaren lanketa, jardunak gizarteratzeko baliabide berritzaileak...

Bestelako laguntza ekonomikoak eskuratzeko egindako ahaleginak (loteria, kamisetak, udalez gaindiko erakundeak...) (3 puntu)

Laguntza eskatzeko aurkeztutako txostenaren kalitate eta zehaztasuna (3 puntu)

Elkarte bakoitzaren antzintasuna (1,5)

Irizpide hauen balorazio zehatza eranskinetako taulan azaltzen da.

10.- IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

Oinarri zehatz hauetan jasotako laguntzak emateko instrukzio-organoa honako hau izango da:

LEHENDAKARIA: *Kultur zinegotzia.*

KIDEAK: *Bakio Bizi batzordeko alderdi bakoitzeko zinegotzi bat, kultur teknikaria eta euskara teknikaria.*

IDAZKARIA: *Udal idazkaria edo horrek izendatutako udal teknikaria.*

Ordenantzak ezarritakoari jarraituz, udalbatzak ebatziko ditu diru-laguntzak, behin

instrukzio-organoak emandako ebazpen-proposamena eta beharrezko informazio-batzordeak egindako irizpena kontuan hartuta.

11.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publikoek zein pribatuek xede berarekin emandako edozein diru-laguntzarekin. Denadela, ezingo da gainfinantzaketarik egon. Zenbatekoari dagokionez, elkarte bakoitzari gehienez emango zaion diru-laguntza xede honetarako ezarritako aurrekontu partidaren %10 izango da. Hortaz, eskatzaileei gehienez eman dakiekeen diru-laguntza 2.700 eurokoa izango da, beti ere, elkartearen aurrekontua gainditzen ez bada. Izan ere, lortutako diru-laguntza ezin izango da izan elkarte bakoitzaren aurrekontuaren % 90 baino altuagoa, gainfinantziatorik egon ez dadin.

Eskaerak eta proiektuak aztertu eta baloratu ondoren, lortutako puntuak batu, eta ondoko koadroari jarraituz banatuko da xede honetarako dagoen diru-laguntza partida:

Proiektuari emandako puntuak	Emandako diru-laguntzaren %	
<i>40 puntu edo gehiago</i>	<i>Partidaren % 10 (2700€)</i>	
<i>32-39 puntu</i>	<i>Partidaren % 7,5 (2025€)</i>	
<i>24-31 puntu</i>	<i>Partidaren % 5 (1350€)</i>	
<i>16-23 puntu</i>	<i>Partidaren % 2,5 (675€)</i>	
<i>15 puntu edo gutxiago</i>	<i>0 €</i>	

Bestalde, diru-laguntzen emakida ebazpena egiterakoan eskura dagoen aurrekontuaren eta kreditu egokiaren eta nahikoaren arabera baldintzatuta egongo da. Izan ere, gerta daiteke eskaera kopuruaren ondorioz diru-laguntzaren 2.700 euroko kopurua behar bestekoa ez izatea ontzat emandako eskaera guztiei zenbateko hori eman ahal izateko; halakorik gertatuz gero, aurrekontu partidan ezarritako diru-kopurua ontzat emandako eskaeren artean hainbanatuko da modu proportzionalean, betiere gorago zehaztutako taulan jasotako portzentajeak kontuan hartuz.

12.- ERAKUNDE ONADUNAREN BETEBEHARRAK

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak aurkeztutako proiektua aurrera eraman behar du udal ordenantzaren 15. artikulua ezarritakoarekin bat etorritz.

Nolanahi ere, emakidaren ebazpena egokituta, onuradunak haren edukia aldatzeko

eskatu ahalko du, eta baimendu ahal izango da, baldin eta besteen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

Erakunde eskatzaileak, diru-laguntzaren onuraduna den kasuan, nahitaez barne hartu beharko ditu sustapen-elementuetan eta diruz lagundutako jardueraren horma-irudi, testu, aurkezpen edo agirietan, Bakioko Udalaren babesa lortu duela; halaber, euskaraz edo EAEko bi hizkuntza ofizialetan landu beharko ditu horma-irudiak, testuak, agiriak zein ahozko adierazpenak.

13.-DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

a. Jasotako diru-laguntzari emandako erabilera justifikatzea da onuradunek duten beste betebeharrerako bat. Aurtengo deialdian jasotako diru-laguntzen justifikazioa elkarrekin datorren urteko (2020) urtarrilaren 31rako (barne) egin beharko dute.

b. Aipatu bezala, horiek justifikatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

b.1. Gauzatutako jardueren memoria zehatza.

b.2. Jarduerak sortutako sarrera eta gastu guztien balantzea. Sarreraren zerrendan edozein kontzepturengatik lortutako sarrerak jaso ahalko dira, hala nola: bazkideen kuotak; edozein erakundetatik (publikoak nahiz pribatuak izan) eskuratutako diru-laguntzak edo babesletzak; sarreraren salmentagatik edo jendeak emandako borondatea dela-eta bildutako zenbatekoak; loteriak edo zozketak; txosnetan eta abarretan edariak edo jakiak salduz ateratakoa; publizitatea, materialaren (eranskailuak, pinak eta abar) salmentatik ateratakoa eta abar.

Gastuen eta inbertsioen zerrenda egongo da sailkatuta diruz lagundutako jardueraren gastuak edota inbertsioak bilduz.

Diruz lagundutako programarekin edota jarduerarekin harreman zuzenik ez duten gastuak (catering eta ordezkariak, bazkariak eta antzekoak) ez dira justifikazio moduan erabiliko, baldin eta programaren kostuaren % 10 gainditzen badute.

Langileen gastuak barne hartzen dituzten diru-laguntzen kasuan, dagozkien nominen edo soldaten ordainagirien zenbatekoak ere jaso ahalko dira.

Balantze hau erantzukizunpeko adierazpen bidez aurkeztuko da, betiere Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 30/2003 Legearen arautegia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorriz.

b.3. Diruz lagundutako jarduera dela eta argitaratutako liburuxka, horma-irudi, liburu, bideo, CD-Rom eta abarren ale bana.

c. Onuradunak aurkeztu dituen jatorrizko agiriak behar baditu, egiaztagiriak fotokopiekin batera aurkeztuko dira, horiek egiaztatu eta jatorrizkoak zigilatu ondoren

onuradunari itzultzeko.

d. Aurkeztutako egiaztagiri guztiek diru-laguntza ematen den ekitaldi ekonomikoko urte naturalean dataturik egon behar dute, diru-laguntza emango bazaie.

e. Esan bezala, 2020ko urtarrilaren 31ra arteko epea dago 2019. urtean jasotako diru-laguntzaren justifikazioa egiteko. Horrela ez baliz egingo, elkarte horrek ezin izan luke aurkeztu hurrengo urteko deialdira harik eta beharrezko zuriaketak egin eta Udalarekiko zorrak kitatu arte.

14.- ZEHAPEN-ARAUBIDEA

Zehapen eta arau-hausteen araubidea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluan eta Administrazio Publikoaren Zehapen Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa izango da.

8.- BAKIOKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAUBIDEA ETA JARDUEREAK ARAUTZEN DAUZAN ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA HASIKERA BATEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Espedientean proposatzen da ordenantzearen 7. artikulua bigarren paragrafoa aldarazotea, hondartzako udako denboralditik kanpo (bagilaren 1etik irailaren 30era) animaliak hondartzan sartzea ahalbidetzeko, beti be erabiltzaileek animaliak eukiteko eta babesteko udal ordenantza arautzaileak ezarritakoa beteten badabe. Izan be, txakurrak hondartza aldera eroan ahal izateko, honakoak derrigorrean bete beharreko baldintzak izango dira: jaubeek kontrolpean eukitea eta jaubeek edo jagoleek txakurren gorotzak batzea.

Gaia informazino batzordean aztertu dala kontuan hartuz, zinegotziek botoa emondabe, eta, ondorioz, Bakioko Udalbatzak honako erabagia hartu dau, bertaratutako zinegotzien aho batez (10 guztira):

1.- Bakioko hondartzako erabilera-araubidea eta jarduerak arautzen dauzan ordenantzearen aldarazpena hasikera batean onartu.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 70 eta 65.2 artikuluen arabera, aldarazpena hamabost egun buruan indarrean sartuko da, beti be Bizkaiko Aldizkari Ofizialen oso-osorik argitaratzen dan biharamunetik kontetan hasita.

9. BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN BATZAR NAGUSIAK PARTZUERGOKO ESTATUTUEN ALDARAZPENA ONETSI DAUALA ETA, ALDARAZPEN HERRERI BURUZKO ERABAGIA HARTU

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Batzar Nagusiak, 2019.01.8an, erakunde horren Estatutuak aldarazotea onetsi eban hasikera batean.

Erabagi hori jendaurrean ikusgai egon zan bitartean (BAO 2019.01.10a) alegazino-idazki bi aurkeztu ziran, eta Partzuergoko Batzar Nagusiak, 2019.03.13an, alegazinoei buruzko ebazpena hartu eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Estatutuen aldarazpena onartu eban.

Estatutuen aldarazpenari buruz, Bizkaiko Foru Aldundiak txostena egin eban.

Kontuan izanik, Estatutuak behin betiko aldarazoteko, Partzuergoko erakunde gehiengoaren onespena behar dala, beti be Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Estatutuen 44. artikuluan ageri danaren eta Bizkaiko udalez gairdiko eremuko erakundeak araupetzeari buruzko martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauko Xedapen arabera; Bakioko Udaltzari jagoko Partzuergoko Batzar Nagusiak onartutako Estatutuen aldarazpenei buruz erabagia hartzea.

Zinegotziak hemen aitaturako dokumentazioaren ganean jakitun diran ezker, eta gaia udaleko infromazio batzordean landu dan ezker be, horreek bozkatzeari ekin deutse, eta, ondorioz, Bakioko Udaltzak, ondoko erabagia hartu dau korporazioa legez osotzen daben zinegotzien gehiengo osoaren aldeko botoagaz (4 boto EAJ-PNV taldeko zinegotzienak eta boto 2 BAKIOBAI taldeko zinegotzienak):

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Batzar Nagusiak 2019ko martxoaren 13an hartutako erabagiagaz bat etorriz, erakunde horren Estatutuen aldarazpena onartzea.

EH Bildu taldea osotzen daben zinegotziek (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Egoitz Abio eta Aitor Ibarzabal) Estatutuek onartzearen kontrako botoa emon dabe, Ametsek azaldutako arrazoi honeek dirala eta:

Estatutuen aldaketa egin da Busturialdeko Mankomunidadea Partzuergoan sartzeko asmoz, eta Partzuergoan entidade gehiagok parte hartukeran, horrek bertako bazkideen erabagi ahalmenaren murrizketa ekarriko dau. Eta, ondorioz, udal bakotzak bere proposamenak aintzak hartzeko aukera gitxiagoa izango dau Partzuergoan.

Horrez ganera, Bakioko biztanlearen eta aldi baterako etorten dan jendearen beharrianak beteteko (urigintzako plangintzen garapenaren ondorioz, etorkizunean egon daiteken populazioa kontuan hartuta be bai) herriko ur emariak nahikoak diran

jakin nahian, azterlana egiteko enpresa zehatz bateri agindua emon jako, eta, beraz, azterlan horren zain be bagagoz.

10.- UDAL-KIROLDEGIA ERABILTEKO ARAUDIAREN ALDARAZPENA HASIKERA BATEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Bakioko Udalbatzak, 2016ko irailaren 22an egindako osoko bilkuran, onartutako udal-kiroldegia erabilteko araudia dago indarrean, Udalbatzak 2017.03.30ean onartutako aldarazpena barruan dala.

Orain proposatzen dan aldarazpenaren nondik-norakoa azaldu dau Amets Jauregizar alkate andreak, horren edukina hauxe izanik:

10. or., 2.- Igerilekuetako arauak:

- *Ez da animaliarik onartzen.*
- *Uretara sartzeko. DERRIGORREZKOA DA dutxa hartzea bainu-eremuan sartu baino lehen.*
- *Igerilekuaren eremura sartzeko, EKIPAZIO EGOKIA eroan beharko da: bainujantzia, txanoa eta igerilekurako baino ez diren oinetakoak. Beraz, bainu-hartzaileentzako eremuan ezin da kalez jantzita edo oinetakoak soinean sartu.*
- *EZIN DA FILMAZIORIK EDOTA ARGAZKIRIIK EGIN instalazioan, ez bazaie eskaera berezia egin aldez aurretik Kiroldegiko arduradunei, eta betiere beste erabiltzaileei eragozpenik ez bazaie sortzen.*
- *Kristalezko betaurrekorik, aletarik edota antzeko apaingarririk ezin izango da erabili, betiere horretarako medikuaren ziurtagiria aurkeztu ezik.*
- *Haurtxoentzako igeriketa-klaseetan (4-36 hilabete) TUTOREETAKO BAT EGON BEHARKO DA bertan. Profesional kalifikatu batek gidatuko ditu jardueran zehar egin beharrekoaz.*
- *Erabiltzaileek uneoro INSTALAZIOKO LANGILEEN ARGIBIDE ETA AGINDUAK BETEKO DITUZTE, eta, bereziki, SOS zerbitzukoek egindako segurtasunari dagozkionak.*
- *Ezin da ezelako kremarik, oliorik eta antzekorik erabili, ezta eguzkirik hartu be, kirol igerilekuak dira eta. Ezin da etzaulki, eguzkitako eta antzeko elementurik erabili.*

- GALARAZITA DAUDE BESTE ERABILTZAILEAK ERAGOZTEN DITUEN JARRERAK, elkarganako begirunea eta elkarbizitza zaintzearen. Beraz, behin eta berriro jarrera desegokia duten erabiltzaileak instalaziotik irten beharko dira, eta, hala badagokio, arduradunek sartzeari debekatu ahal izango die, edota dagozkien legezko neurriak hartu.

- ESKERTUKO DA ERABILTZAILEEK EGOKITZAT HARTZEN DITUZTEN IRADOKIZUNAK EDO ERREKLAMAZIOAK EGITEA, leudekeen okerrak zuzentze eta zerbitzua hobetze aldera. Horretarako hainbat bide izango dute: instalazioko langileen bitartez, iradokizun- eta erreklamazio-orriak betez, edota erabiltzaileen iritziak ezagutzeko sortutako galdetegiak erantzunez.

Zinegotziak aldarazpenaren edukinaren jakitun diran ezkerro, eta informazio batzordean gaia landu dala kontuan hartuz be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Udal-kiroldegia erabilteko araudiaren aldarazpena hasikera batean onestea.

2.- Espedientea 30 egun baliouduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko webgunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 70 eta 65.2 artikuluen arabera, aldarazpena hamabost egun buruan indarrean sartuko da, beti be Bizkaiko Aldizkari Ofizialen oso-osorik argitaratzen dan biharamunetik kontetan hasita.

11.- UDAL KIROLDEGIAN ANTOLATU ETA GARATZEN DIRAN KIROL JARDUERETAN IZENA EMOTEAGAITIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DAUZAN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA HASIKERA BATEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Bakioko Udalbatzak, 2016ko irailaren 22an egindako osoko bilkuran, kiroldegiko prezio publikoak eta eurok arautzen dauzan ordenantzea onartu eban. Harrezkero, udalbatzak, aldarazpen hiru onartu dauz, lehenengoa, 2017ko martiaren 30ean; bigarrena, 2018ko irailaren 27an; eta, azkena, 2018ko zemendiaren 29an.

Hori horrela izanik, Amets Jauregizar alkate andreak adierazo dau prezio publikoak arautzen dauzan ordenantzea aldarazo beharra dagoala, aldarazpenaren nondik norakoa hauxe izanik:

Ordenantzaren Abonatuen atalearen barruan hauxe erabagitea proposatzen da: *Udako hiruhileko abonamendua merkeagoa izango da, instalazioak geldialdi teknikoa dela eta itxiko direla kontuan hartuz.*

- Ordenantzaren **ERANSKINEAN, Prezio Publikoari buruzkoa, hauxe:**

1.3.bis) UDAKO HIRUHILEKOA

1.3.1. Familiarra

euro

Familia unitatea (guraso bakarreko familiak % 50) 65,00 €

4-17 urte bitarteko seme edo alaba bakoitzeko 12,00 €

18-25 urte bitarteko seme edo alaba bakoitzeko 20,00 €

1.3.2. Indibiduala

40,00 €

Zinegotziak espedientean jasoten dan aldarazpenaren edukinaren jakitun diran ezkerro, eta informazio batzordean gaia landu dala kontuan hartuz be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Bakioko kiroldegian antolatu eta garatutako kirol-jardueretan izena emotearren ordaindu beharreko prezio publikoen ordenantzearen aldarazpena hasikera batean onartzea.

2.- Aldarazpenaren espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean indarrean sartuko da.

12.- LANDA KATASTROKO 21, 258 ETA 28 LURSAILEN ERABILERA ETA KUDEAKETA LURGAIA FUNDAZINOAREN ESKU LAGATZEKO HITZARMENA BEHIN BETIKO ONARTU; IZAN BE LURSAILOK BAKIOKO UDALAREN ONDARE-ONDASUNAK DIRA.

Aurrekariak

Udala ondare-ondasuna diran landa lurteko hiru lursail honeek jaubea da: landa katastroko 6. Poligonoko 21 (2,4061 ha.), 251 (2,9971 ha.) eta 28 (0,2728 ha.) lursailak.

LURGAIA FUNDAZINOAK udalari proposatu deutso lursail horreen erabilera berari lagatzeko euron kudeaketa egiteko. Izan be, helburua da lursailak kudeatzea, baso autoktonoa bihurtze aldera ahaleginak egiteko mantentze eta eraberritze lanen bitartez.

Lankidetzaz Hitzarmena 10 urteko iraupena izango dau, eta helburua hau da:

“Lurgaiak fundazioak lursailok kudeatuko dauz baso autoktonoa jagoteko eta basobarritzeko; horretarako, bere gain hartuko dauz beharrezko gastu guztiak, hau da, Lurgaiak fundazioak berak proposatu eta jaubeagaz batera sortutako jarraipen batzordearen markoan berbatutako jarduketak aurrera eramateko beharrezko gastuak. Era berean, lursail horreetan irabazi asmoa daukan jarduerarik ez egiteko konpromisoa hartzen dau.

Hirugarrena: Lurgaiak fundazioak konpromisoa hartzen dau hitzarmenaren jarraipen batzordearen markoan alde aurretik berbatu ez dan jarduketarik bape ez egiteko (lanak, hesiak, espezieak, etab.). Lursailak basobarritzeko orduan (eukaliptoaren kimu barriak ebagitea eta basobarritzeak), INGURUMEN BOLUNTARIOen tresna lehenetsiko da eta Bakioko Udalak zeregin horreen garapenean parte hartu ahalko dau finantzazinoaren aldetik. Edozein kasutan be, lursailetan aurrera eroan beharreko jarduketak bat etorriko dira udalerriko urigintza plangintzan jasotako ezarpenakaz.

Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak, 2019ko zezeilaren 28an egindako bileran hauxed onartu eban:

1.- Landa Katastroko 21, 258 eta 28 lursailen erabilera eta kudeaketa LURGAIA FUNDAZINOAREN esku lagatzea eta, horretarako, hitzarmena hasikera batean onartzea; izan be lursailok Bakioko Udalaren ondare-ondasunak dira.

2.- Herri administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikulua araber, espedientea 20 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko webgunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia.

Espedientea jendaurrean egon dan sasoiak aldi inork be erreklamazinoarik aurkeztu ez dauan ezker, Bakioko Udalbatzak, 2019.02.28an hartutako erabagia behin betiko onartu beharra baino ez dago.

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

Landa Katastroko 21, 258 eta 28 lursailen erabilera eta kudeaketa LURGAIA FUNDAZINOAREN esku lagatzea eta, horretarako, hitzarmena behin betiko onartzea; izan be lursailok Bakioko Udalaren ondare-ondasunak dira.

13.- 2019KO UDAL AURREKONTUAREN ALDARAZPENAREN 6. ESPEDIENTEA ONARTU, KREDITU TRANSFERENTZIEN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpenaren nondik norakoa azaldu dau, espedientearen edukia hauxe izanik:

KREDITUAK TRANSFERITZEKO PROPOSAMENA

Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Gaur egun	Aldarazpenak/bajak	Behin betikoak
920.227.07.02	Estudios y trabajos	82.541,00 €	40.000,00 €	42.541,00 €
		82.541,00 €	40.000,00 €	42.541,00 €

Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
151.642.00.01	Marisma	25.000,00 €	40.000,00 €	65.000,00 €
		25.000,00 €	40.000,00 €	65.000,00 €

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horri buruzko azalpenak emon dauzan ezker, bai eta informazio batzordean aztertu dan ezker be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **2019 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 6. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu transferentziaren modalidadean**

14.- BAKIOKO ESTEPONA IBAIARI JAGOKONEZ, URIOLEN AURKA BABESTEKO OBREN BURUTZAPENA ETA INGURUMEN-HOBETUNTZA –BAKEA ETA SOLOZARRE EREMUETAN LAMINAZINO LAUTADAK SORTZEKO– PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUEN KONTRATAZINOARI BURUZKO ESPEDIENTEA ONARTU.

Udalaren osoko bilkurak, aho batez, gai horrerri buruz, momentuz, ezer ez adierazotea erabagi dau, gaia zinegotziek hobeto landu arte.

15.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Maria Begoña Abio zinegotzi andreak, EAJ-PNV udal taldearen izenean hauxe galdetu dau:

Eskolako aterpeko obrak, danok dakigun modura, atzerapena eta errakuntzak izan dauz, eta gaia garrantzitsua da, obra hori eskolako eraikinaren atal bat dala kontuan hartuz.

Atzerakuntza bost hilabetekoa da, eta uste dogu errua ezin jakola kontratisteari bakarrik bota, gure ustez udal gobernuak ez dau jakin atzerapenaren arazoari urtenbidea emoten. Eraikuntzari jagokonez, ikusten dogu egindako obreak egituraren kalidadearen aldetik akats batzuk daukazala, eta, beraz, jakin gura dogu hori horrela geratuko dan edo hobetzeko asmoa dagoan.

Amets Jauregizar alkate andrea dinotso:

Obra bat esleitzen dan momentuan, arazoaren arriskua hor dago beti. Edozein obra bikain amaituko dala aurreikustea gatxa da.

Udal gobernuak, daborduko, bere neurriak hartu dauz; izan be, obraren kontratisteari isunak jarteko jardunbidea izapidetzen dabil. Horrenbestez, udal gobernuak ahaleginak egiten dabil obrearen burutzapena harik eta ondoen kudeatzeko.

Obrearen esturturearen kalidadeari jagokonez, akatsen barririk ez daukagu. Obraren jarraipena teknikoei jagoke, euron burua obra zuzendaria izanik. Beraz, teknikoaren beharra da udalari obraren gorabeheren barri emotea.

Azkenik, Ametsen eta Maria Begoña artean eztabaida izan da obra horren jarraipen kudeaketa dala eta. Eta bakotzak bere adierazpenei eutsiz amaitu da eztabaida.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoan ezker, ezta gai-zerrendatik kanpo be, alkate andreak batzar hau 20:15ean emondau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria